

DIRU ITURRIAK

Gure irabazi iturriak, ia bere osotasunean lortzen dugun energia saltzen eta bezeroen kuotetatik lortuko dugu. Diru sarrera hauek aldakorrak izango dira, lortzen dugun energia kopuruaren arabera eta bezero kopuruaren arabera delako.

Urtean 300 egun edukiko dugu gimnasioa zabalik eta elektrizitatea produzitzen duten 17 makinetak (5 bizikleta, 5 eliptika, 5 zinta eta 2 arrauneko) egunero 3 ordu erabiltzea aurreikusten dugu, hau da 51 ordu egunean. Makina hauetako bakoitzak orduko 120kwh lortzen ditu gutxi gorabehera, hau da 6120kwh lortuko ditugu egunean. Nexus enpresak erosiko digu makina hauen bidez lortu dugun elektrizitatea, mwh 50€ tan erosiko digu (1 mwh = 1000kwh) honek 306€ irabaziak emango dizkigu egunean, eta 91.800€ urtean.

Beste irabazi iturri handiak bezeroen koutak izango dira, bezero bakoitzak 40€ ordainduko ditu hilabetero, hau da, 480€ urtean. Ez da gutxi, baina kontuan hartu behar da bezeroek jakingo dutela elektrizitatea modu ekologiko batean ari garela lortzen, hortaz, diru hau ondaintzea atseginagoa egingo zaie. Lehenengo urtean 120 bezero edukitzea espero dugu, hau da, 57.600€ irabaziko ditugu lehen urtean.

Hasiera batean ez dugu irabazi-iturri handirik izango, eta proiektua aurrera eramanez ahal izateko, eta horren beharrezkoak diren irabaziak sortzeko, diru sarrerak beharko ditugu. Taldeko bost partaidetako bakoitzak, 3000€ jarri beharko ditu proiektuari hasiera emateko. Horrela, 15.000€ izango ditugu proiektuari aurre egiteko. Laboral kutxan 15.000€ ko mailegu bat ere eskatu beharko dugu, izan ere, bertan eskeini digute aukera onena.

Kalkulatzen dugunez, lehenengo urtean 164.400€ko diru-sarrerak izango ditugu, gastuak kontuan hartu gabe.